

Gazte eta helduentzako literaturaren arteko muga jorratuko dute Bilbon urriaren 5ean 'Eztabaida literaturarekin' zikloan

BILBO, 1 (EUROPA PRESS). Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak jendaurreko elkarrizketaren bitartez literaturako zenbait irudirengana hurbiltzea proposatzen duen 'Eztabaidak literaturarekin' ekimenak gazteei eta helduei zuzendutako literaturaren arteko muga aztertuko du urriaren 5ean, Seve Calleja idazlearekin eta Inazio Mujika idazle eta editorearekin. Hitzorduan zenbait testu irakurriko dira, euskaraz eta gaztelaniaz egingo den elkarrizketarekin tartekatuta.

Elkarrizketak hilero burutzen dira, asteartez, arratsaldeko 19:30etatik aurrera, Bilboko Bidebarrietako liburutegiko ekitaldi aretoan. Bertan, espezializatutako kazetari bat ekitaldiaren aurkezle eta gidari gisa aritzen da. Oraingoan, topaketaren moderatzailea Maria Eugenia Salaverri kazetaria, idazlea, gidoilaria eta konpositorea izango da.

Urteko zortzigarren hitzorduan, 'Eztabaidak literaturarekin' egitarauak gazteei eta helduei zuzendutako literaturaren arteko mugari buruzko solasaldia proposatuko du. Seve Calleja eta Inazio Mujika gazteei eta helduei zuzendutako literaturaren arteko muga non dagoen azaltzen ahaleginduko dira. Izan ere, aldaketaren adina zein den definitzea zaila den arren, ohikoa da helduek ere kontsumitzea gazteei zuzendutako literatura.

Seve Calleja (Zamora, Espainia, 1953) Euskal Herrian bizi da umetatik, eta Hizkuntza eta Literatura irakaslea da Bilboko Miguel de Unamuno Institutuan. Literaturaren inguruko lehen pausoak poesian eta helduentzako ipuinen arloan eman zituen. Hala ere, gaur egun bere benetako debozioa gazteei zuzendutako liburuak dira. Gazteei zuzendutako literaturari buruzko azterlanak eta artikuluak egin eta ikastaroak eta hitzaldiak ematen ditu.

Bestalde, Euskal Filologian lizentziatutako Inazio Mujika (Donostia, 1963) Alberdania argitaletxeko editorea da argitaletxea 1993an sortu zenetik. Bere haurtzaroan Tolosako Urkizu auzoan ezagutu zuen nekazaritza giroak sortu zion literaturaren unibertsoa, eta giro hori 'Azukrea belazeetan' ipuinen liburuan islatzen ahalegindu zen.

Halaber, Maria Eugenia Salaverri kazetaria, idazlea, zine gidoilaria eta konpositorea da. 'Retrato de un pájaro' poesia liburua eta 'Un tango para tres hermanas' kontakizunen liburua argitaratu ditu, eta 'Calor... y celos' eta 'Marujas Asesinas' filmen gidoilaria izan da.

HIRUGARREN EDIZIOA

2007ko urtarrilean 'Eztabaidak literaturarekin' egitaraua martxan jarri zenetik, Bidebarrietako liburutegiko ekitaldi aretoak idazle bikoteen arteko elkarrizketak jaso ditu, besteak beste, Ramiro Pinilla eta Harkaitz Cano, Ana Maria Moix eta Luisa Etxenike, Alfonso Sastre eta Carlos Gil, Belen Gopegui eta Iban Zaldua, Luis Eduardo Aute eta Ruper Ordorika, Juan Manuel De Prada eta Aitzpea Goenaga, Juan Bas eta Juan Madrid, Luis Sepulveda eta Unai Elorriaga edo Suso de Toro eta Joseba Zulaika.

Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailaren ekimena, idazleengana hurbiltzeko era berria izan da, jende aurreko elkarrizketaren edo eztabaidaren bitartez, aurretik proposatutako gai batean oinarrituz.

Egitarauaren helburua lehen mailako kazetariekin, historialariekin edo idazleekin elkartzeko aukera eskaintzea izan da, bertan, idazketaren munduarekin erlazionatutako gaiak planteatu ahal izateko, elkarrizketaren bitartez.